

Valladolideko Unibertsitateko irakasle titular den Juan Martin Pradak, 2003ko azaroaren 19an, Artelekun, (a-J) artea eta jakintza mintegiaren barruan eskaini zuen *Artearen irakaskuntza eta Unibertsitatea* konferentziaren laburpena.

Juan Martín Pradak, bere hitzaldiari ekiteko, artearen irakaskuntzaren praktikak dituen fundamentuak zehazteko zailtasunari buruz hitz egin zuen. Bere iritziz, eztabaida sortzen duen gai bat da. Era berean, oso sentibera da, maila desberdinetan jende askok parte hartzen baitu. Adierazi nahi izan zuen, halaber, bere konferentzian aurkeztu zuen proposamena eta bertan adierazi ziren ideiak irakasle gisa izandako esperientzia eta lotura pertsonalarekin zerikusia zutela, eta, ondorioz, eztabaida orotara irekita zeudela.

Gizarte-harremanen konplexutasuna praktika artistikoen bilakaeran islatzen da. Horrek ez du prozesu paralelo bat izan hezkuntzaren eremuan, eta, hori dela eta, artearen irakaskuntza jasaten ari zen legitimotasunaren krisia are gehiago sakondu da. Juan Martin Pradaren iritziz, une honetan beharrezkoa da artea irakasteko erabiltzen diren metodo pedagogikoen, edukien eta orientazioen bilakaera sakon bat. Irudiak sorkuntza artistikoarekin duen harremanetik, eta sorkuntza artistikoak gizarte honekin duen harremanetik sortzen diren arazoei behar bezala erantzungo dieten bide berriak ezarri behar dira. Irudiak, Juan Martin Pradak esan zuenaren arabera, argi eta garbi gainditu du potentzial adierazgarria, bere jatorrizko xedea utzi du: soziala dena sinbolikoa denetik eraikitzea. "Nolabait ere, ikusgarria pentsamendu bilakatu da, eta jadanik ez da emaitza, bitartekoa edo lengoia bakarrik", azaldu zuen.

Egoera horrek praktika artistikoaren funtzio soziala berraktibatzea exijitzen du, eta prozesu horretan ikastetxeek garrantzi biziko funtzio bat betetzen dute. Gizarteak artea egoera zentrifugo batetara kondenatu du, eta artearen irakaskuntzak egoera horri aurre egiteko mugimendu bat sortu behar du. Horretarako, beharrezkoa da ikastetxeetatik artearen funtzio sozialaren errekonozimendua areagotzea. "Artearen jakintzak, hausnarketa-bide berriak irekitzeko, indarrean dauden pertzepzio-prozesuak zalantzan jarri behar ditu" Juan Martin Pradaren iritziz. Artearen hezkuntza-eremuak ikaslea zabalkuntza bisualak ezkutatzen duena aurkitzera, bistan dagoenaren nabarmentasun faltsua ikertzera, bultzatzeko balio behar du.

Gizartea irudiak zabaltzeko estrategiara ohitu da, eta arteak estrategia hori eten behar du, mundua ulertzeko ezarri diren moduak zalantzan jarri behar ditu. Praktika artistikoari dagokion irudi berrien ekoizpena izango litzake, Juan Martin Pradaren hitzetan, jasan duten irreflexioa ahultzeko gaitasuna duen tresna bakarra.

Hezkuntza-eredu hobereana, Juan Martin Pradaren iritziz, artea pragmatismoa ideia eta galdera berrien ekoizpenarekin konbinatzen duen zentzumen-ekoizpen gisa hartzen duen hori da. Ezagutza identifikatzera baino, pentsamendua ezeztatzen orientatutako galderak. Eredu horrek,aldi berean, ezagutza teknikoa eskainiko du, ez utilitarismorako edo kontsumorako tresna gisa, baizik eta elkarrekintza sozialeko modu berriak sortzeko. "Irakaskuntza-jarduerak komunikazio sozialeko ereduentzako euste-puntuak bilatzen lagundu behar du, artea indar sozial gisa berreskuratzen lagundu behar du" esan zuen azkenik.

CC

Testu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Kopiatu, banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.